

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Enara Villafafila Illarramendi

*Usurbil,
Gipuzkoa
(2004)*

Aurkibidea



Biografia



Usurbildarra, guraso biak bertakoak ditu. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta yoga egiten zuen. Irati Alduntzin lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean parte hartu zuten. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Zintak

USU-092

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-10
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Iaz, noka ikastaroa institutuan

- **Erref:** USU-092/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Noka ikastaroa antolatu zuten institutuan, beraiek eskatuta. Sei bat apuntatu ziren. Ordutegia ez zen ona izan. 3-4 saio izan ziren, eta dinamikoak izan zirela diote, baina praktikoagoa izatea faltan bota zuten: ahozkoa lantzea eta ez idatzizkoa.</p>

2. Familian hitanoa entzuteko aukera

- **Erref:** USU-092/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:46. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Enararen familian hika asko erabiltzen dute, eta entzuten du, baina berari ez diote asko egin. Iratik aitonari entzun dio batez ere, toka. Usurbilen asko entzuten da toka.</p>

3. Hitanoaren egoera Usurbilen

- **Erref:** USU-092/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Aditz batzuk asmatu egiten dituzte. DBH1etik aurrera mutilek hika egiten dute. Usurbilen osasuntsuen aitonaren artean ikusten dute. Neskei noka egin beharrean toka egitea. Beraiek bazilatzeko erabiltzen dute hika. Mutil batzuek ez zekiten noka existitzen zenik ere.</p>

4. Hizkuntza-ohiturak aldatzea

- **Erref:** USU-092/005
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:11:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ikastaroa egin nahi zuten beraien artean erabili ahal izateko. Zuka hitz egiteko ohitura aldatzea ez da erraza. Hikalagunean parte hartuz gero, beharbada errazagoa izango litzateke. Lotsa ere sentitzen dute, segurtasun falta: gaizki esateko, hobe isilik. Eskolan ez dituzte hikako formak ikasten.</p>

5. Gaztelaniaz hitz egiteko joera herrian

- **Erref:** USU-092/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Adineko neskek ez dute hika egiten eta euskaraz ere batzuek ez, ez

Lasarten bakarrik baita Usurbilen ere. Beraiei zaila egiten zaie hika egitea, eta euskara erabiltzen ez dutenei ba are gehiago.</p>

6. Toka hikaren sinonimo moduan

- **Erref:** USU-092/007
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:12:43. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Usurbilgo mutilek hika egiten dute beraien artean, baita ikastetxean ere. Kanean ikasten dute. Toka kale-hizkuntza moduan hartu da, patriarkatuaren eraginez. Ohituago daude toka entzutera. Hika tokaren sinonimo moduan erabiltzen dute.</p>

7. Noka, ahalduntze-tresna moduan

- **Erref:** USU-092/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:17:26. **Bukatu:** 00:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Usurbilen mutilek hika hitz egiten dute eta neskek ez. Ahalegina eskatzen du eta ez dakite pausoa nola eman. Konfort eremutik ateratzea kosta egiten da. Kulturaren parte bat da, berreskuratu nahi dutena.</p>

8. Hitanoa baserritarrena; erabilera-ohiturak

- **Erref:** USU-092/012
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa baserriarekin lotu izan da, pobrea izatearekin. Enarak ikusten du hitanoa gure etorkizuneko euskaran. Erabilera-ohiturak. Zuka errespetuzkoa izatea eta hika ez kaltegarria izan da. Erabilera-ohiturak malgutzearen alde daude: beraien aitonei eta gurasoei hika egitea nahiko lukete.</p>

9. Konfiantzarekin lotutako hizkera

- **Erref:** USU-092/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hikak gertutasuna ematen die. Ez diote edozeineri hika egiten. Antzuolako ikerketa batean gazteek "euskal label" batekin lotzen zuten hitanoa. Beraientzat ere bada harrotasun iturri.</p>

10. Eremu informalerako hika

- **Erref:** USU-092/014
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:27:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>"Jo, tia" asko erabiltzen dute, hitanoko formulak baino errazago. Euskara menperatzen ez duen bati ez diote hika egingo. "Aizan" asko erabiltzen dute. Hika zaila dela dioten ustea aitzakia moduan erabiltzen dute batzuek, ez ulertzeko.</p>

11. Usurbilen liburuxka banatu zuten

- **Erref:** USU-092/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Usurbilen hika ikastaroa egin dute, liburuxka ere banatu zuten Noaia aldizkariarekin. Hikapoteoak ideia ona dira praktikatzeko. Koadrilan noka egiteko zer egin dezaketen komentatzen dute.</p>

12. Euskaraz bizi dira; eremu erdaldunena ikastetxea

- **Erref:** USU-092/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:31:19. **Bukatu:** 00:33:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Iratik familian orokorrean euskara erabiltzen du, eta lagunekin ere bai. Ikastetxean asko entzuten du gaztelania. Aldaketa handia izan zen Lasarte-

Oriara etortzea. Euskaraz jarduteko ohiturarik ez duten ikaskideak euskaraz zuzentzen zaizkie askotan eta asko apreziatzen dute.

13. Aisialdian normalean euskaraz

- **Erref:** USU-092/021
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Euskaraz erosoago sentitzen dira. Enararen aitona ez daki euskaraz eta larri ibiltzen da harekin. Iratiri hasieran kosta egiten zaio gaztelaniaz egitea, eta nahiago du euskaraz. Enararen yogakideak ez daki euskaraz, eta klasea gaztelaniaz izaten da. Iratiren futbol taldean badaude gaztelaniaz egiten dutenak, baina haiek ere saiatzen dira.

14. Telebista eta teknologia berriak

- **Erref:** USU-092/022
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak

Laburpena:

"Ur handitan" ikusten zuen Enarak. Saiatzen da euskaraz kontsumitzen. "Errementari" eta "Handia" pelikulak aipatzen dituzte. Gutxi dago euskaraz. Eguraldia eta berriak ikusten dituzte euskaraz. Teknologia berriak ere askotan gaztelaniaz. Twitter normalean euskaraz. Instagram ez hainbeste. Whassapak euskaraz idazten dituzte oro har.

15. Eskolako euskara eta liburuetakoa ez datoz bat

- **Erref:** USU-092/023
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:38:48. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Enara saiatzen da liburuak euskaraz eta gaztelaniaz, bietara irakurtzen. Ez daude ohitura maila altuko euskarazko liburuak irakurtzen. Miren Agur Meabe aipatzen dute. Gaztelaniaz testu askoz jasoagoak irakurtzen dituzte. Iratik informazio-bilaketa gaztelaniaz egiten du googlen. Enarak Berria irakurtzen du on-line.

16. Euskal musika eskuragarri

- **Erref:** USU-092/024
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:45:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Euskal musika asko entzuten dute. Berri txarrak, Ruper Ordorika... Ken Zazpi gustatzen zaio Enarari. Klasikoak entzuten ere disfrutatzen du. Euskal musika kontsumitzea errazagoa da pelikulak baino, eskuragarri dago Spotifyn edo Googlen. Rockaz aparte estilo asko daude euskaraz orain. Regetoia gehiena gaztelaniaz da.

17. Rapa gaztelaniaz, baina bertsolaritza

- **Erref:** USU-092/025
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:45:16. **Bukatu:** 00:49:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Oraindik badago euskarak ez duela gauza guztietarako balio, tabu hori. Adibidez, rapa egiteko. Enara oso bertsozalea da. Udarregi ikastolan ematen zuten bertsolaritza. Gero eta gazte gehiago daude bertsolaritzan eta geroz eta neska gehiago.

18. Zergatik ikasi hika?

- **Erref:** USU-092/030
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:56:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Altxor bat dela diote, gure kulturaren parte.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com